

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Badakigu **JUBIZIRIK** martxan ipintzeko ezinbestekoa dela beste enpresa eta elkarte batzuekin harremanetan jartzea eta haiekin aliantzak eratzea. Egokiena, guk eskaintzen ditugun zerbitzuak enpresa horietako jarduerekin bat egitea izango litzateke, horregatik, zenbait jubilatutako etxeekin kontaktuan jarriko gara. Hasiera batean, gure negozioa ondo joango dela ziurtatu arte, **Uribe Kostako jubilatutako etxeekin** eta **elkarte** ezberdinekin **aliatuko** gara; eta denbora pasa ahala eta dena ondo badoa, **Bizkaiko beste elkarte** anitzekin bilduko gara. Proiektu handia eta nabarmentsua izatea dugu xede, gure helburu nagusia negozioa aurrera eramatea da beti **bezeroen ongizatea bermatuz**.



Bestalde, gure enpresa martxan jartzeko, **erakunde publikoekin** ere aliatuko gara. Batez ere Uribe Kostako **udalekin** harremanetan jarri nahi gara, gure ustez, haiek finantzatu beharko luketeelako modu batean gure zerbitzua. Azken finean, gizarteko talde baten ongizatea bermatuko dugulako eta aproposena zerbitzu **publiko bihurtzea** izango litzatekeelako, baina hara iristeko bide luzea dago oraindik, eta lehenik eta behin Uribe Kostan ezagutarazi beharko genuke.




Bezeroak gure proiektuarekin identifikatzeaz aparte, oso garrantzitsua ikusten dugu hornitzaile eta bezeroen kateak sortzea, gure merkatu ereduak ongi funtziona dezan.

Funtsezko elkartearen artean, **jubilatuaren etxeak** izango ditugu, izan ere, jubilatutako edota adineko pertsonak izango direlako gure bezero printzipalak. Baina beste elkarte askorekin elkartuko gara ere, bezeroek jasoko duten zerbitzua **eraginkorra** eta **baliotsua** izan dadin. Honi esker, **JUBIZIRIK** aurrera ateratzea lortuko dugu, **aliantzak** eginez.

Taula honetan, gure negozio ideia aurrera eramaten lagunduko diguten **aliantza** ezberdinak adierazi ditugu, baina ezagunak egiten garen heinean, aliantza gehiago sortzen joango gara eta Uribe Kostatik haratago zabalduko gara.

HERRIA	ALIATUAK (enpresak eta elkarteak)	DESKRIBAPENA Aliantza mota
Gorliz	"3 ADINERAKO GORLIZKO ELKARTEA"	Adinekoei zuzendutako ekintza soziokultural desberdinak antolatzen dituzte, eta haiekin lanean aritzearen xedea JUBIZIRIK Gorlizko 3. adineko biztanleei eskaintzean da.
	"TRASTE GITARRA GELA" 	Enpresa honek gitarra ikastaroak eskaintzen ditu, eta harekin lankidetzan aritu nahiko genuke 3. adineko pertsoneri gitarra eta solfeoaren bidez musikaren hurbilketa bat eskaini ahal izateko, hilabetero klaseak eskainiz.
Plentzia	"LAGUN ZAHARRAK"	Adinekoei zuzendutako ekintza soziokultural desberdinak antolatzen dituzte (hitzaldiak, ikastaroak, txangoak,...). Haiekin lanean arituko gara, gure zerbitzua Plentziako 3. adineko biztanleriari eskaintzen.
	"CABO BILLANO" 	Ur-kirol jarduera desberdinak eskaintzen dituen enpresa da. Horien artean, surfa, paddle sup-a, kayaka... Alde batetik, ekintza hauek antolatzeaz arduratzen dira; eta beste aldetik, oholak, trajeak eta halako materialak alokairuan ematen dituzte. Horregatik, haiekin aliantza bat egin nahi dugu beraien lankidetzarekin jarduera ezberdinak antolatzeko, edota behar ditugun materialak alokatzeko .

	<p>"URIBE KOSTA SEA TOURS"</p> 	<p>Plentzian kokatutako enpresa ezagun honek jarduera desberdinak eskaintzen ditu, guztiak itsasontziz. Zetazeoak ikusteko aukera eskaintzen du, adibidez izurdeak; kirol-arrantza eskaintzen du, eta aisialdirako itsasontzien alokairua ere. Gure interesa, elkarrekin jarduera desberdinak sortu ahal izatea da, 3. adineko pertsonak eta gazte interesatuek itsasoaz gozatuz, gauzak ezberdinak elkarri erakusteko.</p>
<p>Urduliz</p>	<p>"BETI LAGUNAK"</p>	<p>Elkarte honen helburua kideen elkartasuna sustatzea da, izaera asistentziala duten zerbitzu komunak sustatuz eta sortuz. Eta haiekin lanean aritzearen helburua, gure zerbitzua, JUBIZIRIK, Urdulizeko 3. adineko pertsonari eskaintzean datza.</p>
	<p>GSR Urduliz (Santa Mariñe egoitza)</p>	<p>Santa Mariñe egoitzan adineko pertsonari bizi-zerbitzu integrala, pertsonalizatua eta kalitatezkoa eskaintzen diete. Gure helburua egoitza honekin elkarlanean aritzea da, modu honetan, bertan bizi diren pertsonengana iristeko, gure esperientzietan parte hartu dezaten.</p>
<p>Barrika</p>	<p>"COLISÉE BARRIKA"</p> 	<p>Colisée Barrika Barri egoitza aktiboa da, non adinekoen partaidetza soziala eta norbanakoaren ardura sustatzen den. Beraiek dira zentroko protagonistak, eta adituek zahartze aktiboaren alde besterik ez dute egiten. Haiekin aliantza sortuz, Barrikako adin nagusikoengana heltzea lortuko dugu.</p>
	<p>"GOAZEN UP"</p>	<p>Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, non helburu nagusia paddle sup eta yogaren bidez hobekuntza fisiko eta emozionala lortzea den. Baina beste jarduera oso garrantzitsu bat egiten dute: gure ingurumena zaintzea. Askotan plastiko</p>

		<p>bilketa kolektiboak antolatzen dituzte; hau da, hainbat lagun batzen dituzte eta elkarrekin gure kostaldeak plastikoz edo mikroplastikoz garbitzera dedikatzen dira. Eta jarduera, hau paddlean, itsasontziz edo oinez egin daiteke. Aliantza hau oso garrantzitsua ikusten dugu, mugikortasun murriztua duten pertsonekin oso izaera inklusiboa dutelako eta ingurumenaren zaintzan oso inplikaturata dagoen enpresa delako. Gainera, garbiketa hauek, gazteekin egiten dira, eta aukera ezinhobea da bi belaunaldiak batzeko.</p>
<p>Sopela</p>	<p><u>"ARGALUZA EGOITZA"</u></p> 	<p>Argaluz egoitzan adineko pertsoneri eta haien familiei bizi-zerbitzu integrala, pertsonalizatua eta kalitatezkoa eskaintzen diete. Osasuneko profesionalen osatutako talde bat eskainiz. Gure helburua egoitza honekin elkarlanean aritzea da, modu honetan, bertan bizi diren adinekoengana iristeko, gure esperientzietan parte hartu dezaten beraien eta beraien familiek.</p>
	<p><u>"LAGUN ARTEA"</u></p>	<p>Adinekoei zuzendutako ekintza soziokultural desberdinak antolatzen dituzte, eta haiekin lanean aritzearen helburu nagusia, gure zerbitzua Sopelako adineko guztiei eskaintzean datza.</p>
	<p><u>"ARIMA DANTZA ESKOLA"</u></p> 	<p>Dantza akademia honen laguntzaz, adinekoek euren emozioak eta sentimenduak beste era batera adieraztea lortuko dugu, dantza eginez. Hauek gaur egungo musikara hurbiltzeko eta sasoian mantentzeko aukera izango dute, gazte ezberdinen testigantzetatik. Gainera, eskola hau aliatu bezala izanik, dantza emanaldiak eskainiko dizkigute maiz, gure bezeroek Uribe Kostako gazteen dantzaz gozatu ahal izateko, eta horrela, haiekin harremanetan</p>


		jartzeko.
Armintza	"LEMOIZKO 3. ADINEKO ELKARTEA"	Armintzako erretiratu edota pentsiodunei jarduera ezberdinak eskaintzen dizkie, eta haiekin lanean aritzearen xedea, gure zerbitzua Armintzako 3. adineko biztaleriari eskaintzean datza.
	"BEGOTXU JATETXEA" 	Begotxu jatetxearekin aliantza egitean, gure ideia bezeroei Begotxu bezalako jatetxe batean lan egitea zer den erakustea da. Jakin dezaten nola egiten den zerbitzua, eta janaria iristen denetik zerbitzatu arte zer nolako prozesua dagoen erakustea . Gainera, irteera honekin, sukaldaritzaren oinarrizko nozioak ikasi ahalko dituzte eta Bizkaiko katxopo onenetariko bat dastatu ahal izango dute ere. Beharbada, gaur egungo gastronomia eta orain dela urte batzuetakoaren arteko aldeak ikusteko eta alderatzeko aukera ematen du.
Berango	"JUBILATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA KARABI"	Berango udalerriko erretiratu eta pentsiodunei entretanimendu-jarduera ezberdinak eskaintzen dizkie, elkartzeko leku atsegin bat lortuz. Haiekin lanean aritzearen xedea, gure zerbitzua Berangoko 3. adineko biztaleriari eskaintzean datza.
	"VIAJES ECUADOR BERANGO" 	Bidai enpresa honekin aliatzea aukera paregabea da, bidaiak egiterako orduan, antolatzeko prozesua errezagoa izango eta gure bezeroei bidai merkeagoa ateratzeko aukera izango dugu.

Aipatu berri ditugun enpresa eta elkarte guztiez gain, beste ataletan aipatu dugun bezala gazteen eta hirugarren adineko pertsonen arteko harremanak sendotu nahi ditugu, hori ahalbidetzeko gure **inguruko ikastetxeekin kontaktuan jarriko gara** eta haiekin batera ekintzak antolatuko ditugu, era horretan ikasleak eta gure bezeroak elkarrekin arituko dira. Ikastetxe horietako batzuk **URIBE KOSTA BHI** eta **SOPELA BHI** izan daitezke.


Gauzak horrela, aurrez aipatu ditugun guztiak izango dira gure **ALIATU GARRANTZITSUENAK**.

Bestalde, **JUBIZIRIK** enpresaren sortzaileak lau pertsona izango gara eta bakoitza enpresaren alor batez arduratuko da:

-**LAIA MARTÍN DE PABLO**: bezeroekin **harreman zuzena** izango du eta haien nahiak eta beharrak apuntatu eta Paulari bidaliko dizkio. Laiak, adinekoen beharrak oso ondo ezagutzen ditu, baita Uribe Kostako gazteenak ere; eta oso ondo **erlazionatzen** da haiekin, oso enpatikoa baita. Gainera, Laiak **ingeleseko** eta **euskerako** agiriak ditu, hortaz, bezeroek nahi duten hizkuntza erabili dezakete berarekin.



-**PAULA FERNÁNDEZ GARCÍA**: bere antolatzeko ahalmena erabiliz, ekintzak eta bezeroak **koordinatuko** ditu. Hainbat gauza aldi berean koordinatzeko gai da, eta gainera oso **perfekzionista** da. Horrez gain, **publizitate** kanpainak eta jardueren **bideoak** egiteaz arduratuko da, ikusentzunezko komunikazioa ikasketak egiteko ideia duelako.



-**MAIALEN GARAIZAR INCHAURTIETA**: monitoreza ikastarora egin duenez, eta magisteritzan interes handia duenez, bertan ikasitakoa erabiliko du, eta antolatutako ekintzak praktikan jarriko ditu. Jendea **laguntzeko** gaitasun handia du eta hauek bideratzeko ere.



-**YAIZA FERRO BEDIALAUNETA**: **finantza** eta legezko kontuez arduratuko da, arlo **juridikoan** oso interesatua dagoelako eta zuzenbidea ikasteko asmoa duelako. Aldi berean, beste enpresa aliatuekin kontaktuan jarriko da **finantziario iturriak** lortzeko eta dena modu legal batean egiteko.

